

EUROPA. Barne gatazken konponbidean Europako Batasunak parte hartzeko eskatu du

Europako eskualdeentzako estatus berezi baten alde agertu da Jaurlaritza

Zenarruzabeitiak Gobernuaren iritzia eman du Europako Konbentzioari buruzko batzordean

Pello Urzelai | GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzak Europako prozesu konstituziogileari buruz duen iritzia aurreratu zuen atzo Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak, Europako Konbentzioari buruz Eusko Legebiltzarrean sortutako lan taldearen aurrean. Printzipioak azaltzean «Europako estaturik gabeko nazioak eta eskualdeak eskubide osoko subjektu aktiboak» direla aitortu beharra aipatu bazuen ere, eskakizunak zehaztean legegintza eskumenak dituzten eskualdeen parte-hartzea bermatzeko aitortu beharreko «estatus berezia» nabarmendu zuen Zenarruzabeitiak. Europako etorkizunari buruzko Konbentzioaren lanak aztertze eta prozesu konstituziogileari buruzko jarrera finkatzeko sortutako lan taldeak entzun duen azken iritzia izan da Jaurlaritzako lehendakariordearena. Taldeak orain Eusko Legebiltzarren osoko bilkuran aurkeztu beharreko txostena eta ebazpena idatzi behar ditu.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, Euskal Konbentzioa deituriko prozesua abiatu zuen joan den uztailaren 30ean, Europako Konbentzioari igortzeko asmoz, iritzi ofizial bat zehazte aldera. Horretarako, Europako etorkizunari buruzko eztabaida EAEko erakundetan eta zenbait esparru sozialetan bultzatu zuen. Eragile horien iritziak bildu ondoren, sintesi txosten bat aurkeztuko du Eusko Jaurlaritzak. Hil honetan egingo du, gainera, abenduan, gobernu kontseiluak onartu ondoren (eguna zehazteko dago). Txosten honetan Eusko Jaurlaritzak agertu nahi dituen zenbait gogoeta eta eskara aurreratu zituen atzo Zenarruzabeitiak Eusko Legebiltzarrean. Aurrerago, datorren urtean, Europako Konbentzioak ondorioak aurkeztu ondoren, Eusko Jaurlaritzak beste txosten bat egiteko asmoa du.

Printzipioak eta eskaerak

Europako Konstituzioari begira antolatutako prozesua aipatu aurretik, zenbait gogoeta orokor egin zituen Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak. Lehenik, Europako eraikuntza prozesuan eskumenen dinamismoa eta malgutasuna faktore ontzat jo zituen. Aitzitik, eskumen be-



Idoia Zenarruzabeitia, Xabier Ormaetxea, Gorka Knörr eta Francisco Aldekoa, atsedendian.

EUSKO LEGEBILTZARRA

Osoko bilkura, abenduaren 23an

Eusko Legebiltzarreko Europako Gaietarako eta Kanpo Harremanetarako lan taldeak programatutako agerraldiak amaitu dira. Francisco Aldekoa EHUKo irakaslea eta Idoia Zenarruzabeitia Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea izan ziren atzo azken gonbidatuak. Legebiltzarren osoko bilkurara aurkezteko, txostena eta ebazpena idazteko ordua da. Lan taldeak bilera itxi bat egingo du datorren astean, txostena taldekide guztien artean hitzartzeko aukera aztertze. Adostasunik ezean, Jaurlaritzako koaliziokideek nahiko gehiago daukate txostena osoko bilkurara eramateko. Haien asmoa ezohiko osoko bilkura egitea da; hain zuzen, abenduaren 23an. Horretarako, 25 parlamentarik sinatutako eskaera aurkeztu behar dute. Tramite hori egin gabe dago.

rrien garapena eskualdeen eskumenen kaltean izan dela ohartarazi zuen. Ondoren, Eusko Jaurlaritzak Europako eraikuntzaren aldeko apustua egin duela nabarmendu zuen Zenarruzabeitiak. «Jaurlaritza bat dator», azaldu zuen, eraikuntzaren printzipio demokratikoekin, atxikimendu librearekin, inposizioz ezarekin, bakea bilatzeko formula irudimentsuekin eta lankidetzeta loturak ezartze aldera erabakitze askatasunarekin».

Etorkizuneko Europako Konstituzioari begira, zehazki, «Europako Batasunaren eskualde izaera» aintzat hartu beharra aldarrikatu zuen. Alabaina «estaturik gabeko nazioak

eta legegintza eskumenak dituzten eskualdeak eskubide osoko subjektu aktibotzat» onartu behar direla iritzi zion Zenarruzabeitiak. Hala ere, Europako Konbentzioko lehendakari Giscard D'Estaingek itun konstizionalari buruz aurkeztutako zirriborroak «estatuak baino ez» dituela aipatzen aitortu eta «tamalgarrizat» jo zuen.

Eskaera zehatzak azaltzeko orduan, lehenik, eskualdeek parte-hartze zuzena izateko formulen alde hitz egin zuen Jaurlaritzako lehendakariordeak. Eskualdeei aitortu beharreko «estatus bereziak» honako aukerak eskaini beharko lituzte: eskumenei dagokionez kontsultatuak izatea, erabakiguneetan

IDOIA ZENARRUZABEITIA

Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea

«Bakearen Europa nahi badugu, beharrezkoa da Europak barne gatazken normalizazioa bultzatu eta laguntzea»

parte hartzeko aukera, Europako Auzitegira jotzeko aukera, eskualdeetako parlamentuak kontuan izatea eta eskualde mailako hautes-barrutia antolatzeko.

Horrez gain, hiru eskaera berezi aipatu zituen Idoia Zenarruzabeitiak: Kontzertu ekonomikoari dagokionez, izaera orokorreko sistema fiskaltzat hartzea; euskarari dagokionez, hizkuntza gutxituak bereziki babesteko beharra, eta, euskal gatazkari dagokionez, Europako Batasunak esku hartzeko beharra. «Bakearen Europa nahi badugu, beharrezkoa da Europak eta bere erakundeek barne gatazken normalizazioa bultzatu eta laguntzea», esan zuen. Halaber, «Europako herriak» ordezkatzen dituen parlamentuaren alde hitz egin zuen. PSE-EEko ordezkariak «herria» aipatzean Euskadi edo Euskal Herria esan nahi ote zuen argitzeko eskatu zion. Ez zuen erantzunik jaso.

LABURAEAN

Donostiako hamar gazte aske geratu dira, Auzitegi Nazionalen beren kabuz aurkeztu ondoren

Donostian abuztuan eta irailan Guardia Zibilak eginiko operazioarekin lotu zituzten hamar gazte Espainiako Auzitegi Nazionalen aurkeztu ziren atzo, beren kabuz, eta Laugarren aretoko epaileak guztiak aske utzi zituen. Askatasunak jakinarazi duenez, Arkaitz Mirandari 3.000 euroko bermea ezarri diote, Iñigo Oteizak hilean bitan epaitegira aurkeztu beharko du, eta inolako baldintzarik gabe utzi dituzte aske beste zortzi gazteak: Iñigo Albisu, Ariz Aiestaran, Xabier Aiestaran, Ander Suberbiola, Zorrino Ortigosa, Aitor Jimenez, Iñaki Alzuri eta Oihier Lorente.

Ostiralean atxilotu zuten ustezko etakidea Parisera eraman dute

Joseba Imanol Kortazar Pipaon ustezko etakidea Parisera eraman zuten atzo goizean, eta, seguruenez, gaur pasatuko da epailearen aurretik. Ostiralean atxilotu zuten, Bordeletik gertu, auto istripu bat izan ostean. Agiri faltsuak zituen eta armatuta bide zihuan. Poliziak etakide berriak biltzeaz arduratzea egozten dio.

110 urteko kartzela zigorrak jarri dizkiete Mujika Garmendiari eta Arregi Erostarberi

Francisco Mujika Garmendiari eta Jose Maria Arregi Erostarberi 110 urteko kartzela zigorrak jarri zizkien atzo Espainiako Auzitegi Nazionalak. 1989an bi espetxe funtzionarioi bomba paketeak bidaltzeko agindua ematea egotzi zieten. Funtzionarioetako baten ama hil zen, eta bi senitarteko zauritu. Familia horri 45 milioi pezetako kalte-ordaina ordaindu beharko diote.

Urrutikoetxeak Iturgaitzi jarritako kereila artxibatu egin dute

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak artxibatu egin du Josu Urrutikoetxea Sozialista Abertzaleetako legebiltzarkideak Carlos Iturgaitz EAEko PPko presidentearen kontra «kalumniengatik» jarri zuen kereila. «Ume hiltzaile» deitzean bere «iritzia» eman zuela dio auzitegiak.